

Urri bigarrenaren 22an izango da Arratiako 42. Maratoi Txikia, aurten lehenengoz udagoienera

Lasterketea udagoienera aldatu arren, betiko ibilbideak mantenduko dira. Nagusiek Zeanuri eta Igorren arteko 11 kilometroak egingo ditue, 2006tik 2010era jaiotakoek Arteatik Igorrera dagozan 5 kilometroak eta txikirenek, edadearen arabera, Igorren bertan zirkuituak egingo ditue, 1.300 metro, 800 metro edo 300 metrokoak. **10. orrialdea**



Hiru eguneko jaialdia Zeberion

Herriko Fest jaialdia sortu dau Zelako Kultur Ideiak alkarteak eta lehenengo edizinoa Zeberion izango da zemendiaren 3tik 5era, ZeberioKO izenpean. Jaialdian, musika estilo diferenteetako 15 kontzertu, mahai-inguru bi, erakusketea, bideo-klip baten grabaketea eta proiektzioa, jantzak, Arratiako ekoizleen azokea, bertsolariak eta tailerra egongo dira besteak beste. Kontzertuetarako sarrerak, www.herrikofest.eus webgunean erosi daitezke eta beste jarduerak guztiak debalde dira.

La Basu, Maria Rivero, Green Valley, Woman Soldier, Amparanoia, Bad Sound System eta Ses egongo dira ZeberioKO jaialdian, beste artista askoren artean. **8. eta 9. orrialdeak**



Heriotza eta doluaren jardunaldiak Igorren

Igorreko Liburutegiak antolatuta, zemendiaren 3an, *Mendian hil, hirian hil* filma ikusi ahal izango da Lasarte Aretoan, eta hurrengo egunean mahai-ingurua egongo da liburutegian. Itsaso Bengoetxea Eutanasiaren Berme eta Ebaluazioaren Batzordeko presidentea egongo da bertan. **7. orrialdea**



ARRATIA

Igoran Andren Jabekuntza Eskolea zemendian da hastekoa

Lehenengoa atea zabaltzen, andra migratzaileentzako gunea izango da. Zapatuetan batuko dira Lemoan. Zemendian be hasiko dira *Arteterapia* ikastaroa Igorren eta, Artean, formakuntza feministan sakontzeko, Maria Gorosarriren *Contra la banalización del feminismo* liburuaren lanketea egingo da. Lanketa hau atalka egingo da ikasturte osoan zehar. **5. orrialdea**



ARTEA, ZEBERIO

Zeberio amaitu dau Arteagaz lotzean dauan bidearen bere zatia

Ermibarritik Sarasolaraino, Arteako mugaraino, kaltzada errearen bidetik doan bidearen zatia amaitu dau Zeberioko Udalak. Arteako Udalak be, 150 metro izan ezik, eginda dauka Zeberio gaz oinez edo bizikletaz lotuteko bidearen bere zatia. Kaltzada errearen bidea egungo errepide-tik pasetan da 150 metrotan eta ezin da hortik pasau. **5. orrialdea**



ARRATIA

Hilaren 31n, Gau Baltza ospatuko dabe kalabaza eta mozorroakaz

Arimen gaua edo Gau Baltza, Euskal Herrian be, kalabazak hustu eta kandalak sartu barruan eta eske errondan urtenda ospatuteko tradizioa ia galduta egoan. Ameriketako *Halloween*aren zabaltzeak kezka sortu eban eta lehenengo ohi-turetara bueltetea ebatzi dabe herri askotan. Holan, gaztainak jaten batuko dira hainbat herritan. Bildurra sartu gura daben umeen eske errondak ez dira faltauko inon, modu informalean antolatuta, gehienetan. Umeak batzean diran lekuetan, ludoteka, liburutegia eta gaztelekuetan, gaiaren inguruko tailerrak egongo dira. **6. orrialdea**

Literatura txokoa

HAURRAK EKINEAN

Proposamen desbardin batez gaurkoan, azken aldiaren eleberrak eta komikiak ez diran gai ugariaren inguruko liburak irakurten nabil eta. Hemen dakartsuedan hau, *Haurrak ekinean*, hezkuntzari buruzkoa da. Hezkuntza arautua aldaketa sakon sartuta dagoan momentu honetan, liburu honek aldaketa horretan eragiteko laguntza eskaintzen deusku.

Egilea Mikel Fernández Sánchez da, Arabar Errioxan dagoan Lantziego Ikastolako maisua. Mikel Hezkuntza Publikoan behar egiten dauan maisu bat gehiago da, baina bere esperientzia liburu baten plazaratutako idea aurrera eramateko adorea euki dauan maisua be bada. Horretarako idatzi

dau-eta liburu hau, hezkuntzako langileentzat baliogarriak diran ideak partekatzeko asmoagaz.

Testu-liburuetatik aparte irakasteko edo gauzak egiteko beste modu bat dagoala erakusten deusku liburu honetan. Berak Proiektuen Bidezko Ikaskuntza (PBI) erabiltzen dau bere ikasleak, eta horixe da liburu honen oinarria. Baina ez pentsau PBlari buruzko azalpen teorikoak emoten deuskuzanik, hori egiten daben liburu asko eta onak egon badagoz honezkero (Mikelek berak aitatzten dauz interesgarriak diran batzuk liburuaren zehar). Idea teoriko batzuk topauko dozuz, baina liburuaren mamia berak klasean egindako hiru proiektu dira.

Hiru proiektu horreek hasike-

ratik amaierara azaltzen deuskuz, sorrerako ideatik (ardaoaren ekoizpena, ikasle baten desgaitasun genetikoak, herriaren historia) amaierako produktuaren zabalkundearaino. Ondo azalduta eta erraz ulertzeko moduan idatzi dauz proiektuak. Halanda be, beste edozein ikastetxetan proiektu honek martxan ipintea ezinezkoa dala pentsau zeinke. Baina liburuaren idea ez da proiektuak dagozan moduan kopiatu eta erabiltea, ideak emotea eta antzeko (edo ez hain antzeko) proiektuak sortzeko bidea erakustea baino. Eta ederto baten egiten dau lan hori.

Hezkuntza sistemeagaz hartu-emonen badaukazu irakurri beharreko liburuak dozu hau (bai, Bigarren



Mikel Fernández Sánchez @mikelmalsu

Haurrak ekinean

Autoedizioa, 2003

176 orrialde

Hezkuntzarako be bai!), Hezkuntzaren barriztatzean eragin ahal izateko asko ikasiko dozue.

Hektor Rodriguez

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri bigarrenaren 16tik 22ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Saillburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 23tik 29ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Urri bi. 30etik zementiaren 5era

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dauz guardiak egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunean orduro

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunean: Lehenengo

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunean: 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangoetik. Lanegunean: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunean: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunean: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20ra orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunean: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta

jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorre. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunean: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunean: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarrizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzino arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa) eta Asier Jugo (Arantzazu, Areatza eta Artea). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Miru zuriaren gaineko kantu herrikoia

Aupa BEGITU,

Kanta herrikoi hau Igorrekoa da, XX. mendeko gerra aurretik idatzia, geure inguruez eta bizimoduez esana. Bitxi ederra. Makatzak talde ekologistek Deiar Mendien Egunean Aramotzera egindako salaketa urtekeran abestutako kantua da.

Aramotzetik Garamendira

Aramotzetik Garamendira tximista baten antzean miru zuriak igaroten dau oilandatxuen atzean.

Atso urdinak entzuten ditu haren txistuak aidean kurra ta kurra solora doa bere oiloen atzean.

Atso urdinak, hasarraturik, negarrez dino bidean txite guztiek eroan deustez bata bestean atzean.

Miru zuriak erpea zorrotz pikua zerbait makurra errotea lez birrinduten dau oilandatxuen hazurra.

Miru zuriak jan deuenean oilandatxuen hazurra hegazka doa laino batera ipar haizean antzera.

EKINTZARA BERTARATUTAKOAK

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXXIII). Kale berbakunea sustatu guran

KOTXE ELEKTRIKOA:

- Miren ze egiten **dona** bizikletan? **Eztonat** ikusi bizikletan igonda oin hogeit urte gitxiendiz!!
- Ba kotxe barik gelditu **nokela** (nazela berez).
- Eta zelan ba? Zer pasau **dona**?
- Beste baten kontauko **doat**.
- Eta oin ze egin **behona**?
- Kotxe elektrikoa erosi gura **joat** hi!!
- Ba **etxakinat** idea ona **bona**.
- Ba alternatiba barriak urtetan **jabizena**, autonomia handiagokoak batez be. **Itxoine** apur bat eta bien bitarterako **erosine** bigarren eskuko bat.
- Ba horixe egingo **joat**. Eskerrik asko!

ERETXIA

Bildurrez edo bildur barik berba egin daigun heriotzeaz



MAR SÁNCHEZ LANUZA

Erizaina. Zainketa aringarrietan trebatua

Danok gara heriotzearen bildur. Danok sentiduten dogu larritasuna idea horri jagokonez, inork ez dau hil gura. Persona gehienek gurago dabe ez pentsau. Oin-puntetan pasetan gara, badirudi beti gertatzen jakola besteari, eta, aldiz, bizitza honetako gauza bakarra da, %100eko segurtasunagaz gertatuko dana. Arakatu ezina dirudian bildur hori zeharkatzeko modu bakarra horri buruz berba egitea da.

Gure kulturari, lar identifikatuta gagoz gorputz fisikoagaz eta materialagaz; beste kultura batzuetan, barriz, gorputz fisiko hori baino zeozer gehiago garan usteak naturaltasuna emoten deutso heriotzeari, eta bizi prozesu beraren zati gisa bizi da.

Ezer barik jaioten gara eta ezer barik hilko gara, baina maila guztietan pilatuz bizi gara, eta pisua materialean ipinten dogu. Ha-ta guzti be, prozesu horretan lagunduten daben personek dinoenez, heriotz-ohean gehien ardura dauana da zenbat maitatu dan, zenbaterainoko bakean dagoan bere buruagaz eta besteakaz, zenbat geratu dan egiteko eta gozatuteko izan dauan eta jada prest ez dagoan une bakotxa... Bakean hiltea da garan horregaz eta hartu doguzan ebaztiakaz bakean egotea.

Merezidu dau, beraz, txitean-pitean eguneroko zurrunbiloan geratutea, gure barruagaz konektetako eta gai horren gainean hausnartzeko. Beraz, heriotzeari buruz pentsatea eta berba egitea, bildur hori sortu beharrean, gure bizitza barrikusteko eta oindino sasoz gagozan bitartean ahal doguna aldatutako aukera lez ikusi beharko geunke. Geure heriotzea barneratzeak, orduan, osotasun handiagaz bizitera garoaz.

Heriotzea, umetatik, konzientzia osoagaz, bizitzan zerbait natural moduan integraz bakarrik arinduko leuke hiltera doan personarengan eta bere senideengan sortzean dan sufrimentu gehiena unea ailegetan danean. Eta horretarako beharrezkoa da horretaz berba egitea, ez iges egitea.

Alde egiten daben persona maitatuengaitik eta joaten garanean guregaitik, gizarte gisa, aurrerapausu bat emon beharko geunke, eta daukaguzan baliabide eta espazioa erabili, guztiok igaroko dogun prozesu honeri naturaltasuna emoteko. Beraz, berba egin daigun horretaz.

Berba egiteak bildurra gainditutako eta hortik ikasteko aukerea emoten deusku.

Bildurrez edo bildur barik berba egin daigun.



LUMATUTEN



IXONE AROMA

Gaua da baltza

Ez da barria gurean Domu Santu bezperan kalabaza edota arbiak hustu eta etxe inguruetan ipintea. Soloe-tan egozian hartu/ostu eta barruan kandelak ipintea ohikoa ei zan. Trapu zaharrak jantzi eta etxerik etxe eske errondea egitea be Euskal Herriko auzo eta herri askotan bizirik mantenu izan da ointsura arte. Bete beharreko baldintzea? Atea zabalduten eben etxeok ez ezetutea nor zan mozorroa eukana: hortxe jolasa eta komunitatea sendotuteko bidea. Otzarara gaztainak, intxaurrak edota sagarrak.

Gurean ez eze, mundu zaba-lean be bada antzeko ohitura zaharrik. Neguko eske erronden zikloari hasikerea emoten jakie gau honetan eta aratusteak arte beste hainbat egiten dira, Gabon, Erregen edota Santa Ageda bezperan esate baterako.

Errazoi desbardinakaitik in-darra galduz joan zan ohiturea bueltan etorri da gurera, baina kapitalismoaren eskutik. Honek

ohitura hau be bere egin dau eta gaur egun, antzera barik bardin-bardin ospatuten da Arimen Gaua hemen zein Wisconsinen. Baldintzea? Konsumidutea.

Erropak bazar txinatarrean edo Amazonen erosi (neskentzat X, mutilentzat Y), kalabaza itxurako plastikozko otzaratxoak hartu eta zelofanean batutako azukera gaindosia jaten animetan doguz etxeok txikienak. Ameriketako pelikuletan ikusi eta entzundako *truco o trato* esaten entzun geinkez Arratiako umeak, euskeraz aukerak egon bagadozan arren.

Baten batek pentsauko dau txikieria dala eta gau honetan ezer gitxi dagoala jokoan. Baina pentsetan dot euskeratik eta euskeraz biziteko egun bat gehiago dala; bardintasunean hezi eta biziteko egun bat gehiago dala; kapitalismoari arrakalaxoa egiteko egun bat gehiago dala.

Egia da handia dala aurrean daukagun munstroa, eta ez dala erraza izango bestelako bideak urratutea. Zorionez, badira ekimenak inguruotan eta sistema kapitalistak ezarritakotik aldentzeko aukerak egon badagoz. Bizi daigun Gaba Baltza bestela. Ze, honeri buelta emon ezean, gaua ez eze, etorkizuna be baltza izango da.

ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

Gretelek egundoko antoja hartu deutso txokolateari. Txokolateari eta bere neba Hanseli. Txokolatezko etxea zarratu ebenetik hona tripako mina baino ez dauka, tripala itzelak. Etxeko sorginak esan eutsen, bada: -Ez hartu horrenbeste txokolate, kalte egingo deusue eta! Baina sorginei ez deutsegu jaramon handirik egiten, motz eta zantarrak diralakotan. Gurasoek be jaramon gitxi egiten deuskue, Greteli behinik behin ez deusie kasu handirik egin. Neba-arreba biak etxeratu ziranean, amari txokolate denda ipintea otu jakon. Txokolate denda herriko geltokiaren ondoan. Negozio itzela. Amak be pentsau eban aukera ona izango zala Greteleentzat, holan, ez zalako langabezian egongo. Hanselek nahiko eukiko eban porlan lantegian behar egiteagaz. Greteleri, ostera, ez jakon idea bape gustetan, errebesetan zan txokolate berba entzuten eban bakotxean. Halanda be, ama beti temati, eta atzenean lortu egin eban Gretelek denda zabaltzea. Sasoi haretan, gainera, Hansel hasia zan zaletzen bestelako "txokolate" bategaz. Porlanaren hutsak kili-kiliak egiten eutsazan surtziroetan. Birikietan, barriz, gero eta orban baltz gehiago eukan. Kili-kiliak egin eta mozkortu be egiten eban hauts gris harek. Horregaitik, beharetik urtekeran beti tiretan eutsan txokolate erretzeari, ezpabere, gogorragoa izango zan mozkorraldi antzeko ha derrepentean erabat ixtea. Eta Kalamuaren Aldeko Alderdia osotu eban beste lagun batzukaz, arazo barik eta dealde gura beste erre ahal izateko. Baina, hain inguru abertzale baten, alderdiak ez eban etorkizun luzerik eukiko, Europako hauteskundeetan dozena bat boto lortu eben, besterik ez.

Orain Hansel askotan pasetan da arrebaren dendatik. Gretelek ez dau txokolaterik saltzean, egun osoa emoten dau errebesetan, gomitoka, eta dendan daukan txokolatearen gainean lantegiaren hauts gris pausatzen da. Beharbada, horregaitik joaten da askotan Hansel, bertan txokolate hobea lortzen dualako.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Iluntzea eta gaua eguna baino luzeagoa da daborduko Ipar hemisferioan.

Eta gauak agintzen segiduko dau datozen hileetan. Baltza da gaua; baltza, heriotzea.

Ha-ta guzti be, gau astronomikoa ez da hain baltza: izarrak dagoz zeruan, eta iretargia; eta edertasun izugarri horrek arintzen dau gauaren baltza.

Baltzagoa eta krudelagoa da gizakiak eragindako eta arintzen ez dan gaua. Baltzagoa da Mediterraneoko naufragoena, munduko konzentrazino-esparru eta kartzeletan amatatzen diranena, herrialde totalitario hiltzaileetan heriotzera kondnatuena...

Ezin baltzagoa da Gazan. Eta ez dago heriotz horreek arinduko dituan izarrak.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zerbaita 101
R.P.S. 31/06

ARRATIA

Zemendian hasiko dira Ilgoran Andren Jabekuntza Eskolako ikastaro eta alkartzeko guneak

Lehenengoa atek zabaltzen izango da andra migratzaileentzako gunea. Zapatuetan batuko dira Lemoan eta migrazino prozesuaren harira, alkartasun eta ahizpatasun espazio irekia sortzea proposatzen dau Jabekuntza Eskoleak. Zemendian be hasiko dira *Arteterapia* ikastaroa Igorren eta, formakuntza feministan sakontzeko *Contra la banalización del feminismo* liburuaren lanketea egin gura dabenak.

Erredakzioa

Andra migratzaileek sareak sortzea daukie helburu, zapatuetako topaketak eta jatorri desbardinetako andrak batzean dira 16:00etatik 19:00etara Johana Muñoz trebatzaileagaz, euren esperientziak konpartiduteko. Ikasturte honetako lehenengo hitzordua zemendiaren 11n da.

Zemendiaren 14an, hasiko da *Arteterapia* ikastaroa Elda Barreoren eskutik. Lau saio izango ditu, zemendiaren 14, 21 eta 28an, eguaztenetan, 17:30etik 19:30era arte Igorreko Kultur Etxean. Taldekideek jantza, pintura, musika eta eskultorea erabiliko ditue besteak beste sormena bideratzeko.

Formakuntza feminista zabalatzeko, irakurketa talde egonkor bat sortuko da aurten. Ikasturtean zehar, hilean behin bildu eta Maria Gorosariaren *Contra la banalización del feminismo* liburuaren atal baten gaineko hausnarketea

egingo dabe. Maria Gorosari, liburuaren egilearen laguntza izango dabe horretarako. Partaideak hilaren 3. eguaztenetan batuko dira Arteako Kultur Etxean, 18:00etatik 19:30era.

Izena emoteko moduan al-daketak

Aurten izen-emoteak al-daketak izango ditu. Alde batetik, ikastaroz ikastaro egingo da eta ez ikasturte hasikeran edozein ikastarotarako. "Askotan gertatzen da urrietan ez dakizula, non egongo zaran maiatzean eta izen-emote asko bertan behera geratzen ziran ikastaroa egiteko momentuan. Hori saihesteko, eta partaideen kopuru erreagoagaz kontetako, ikastaroaren aurretik egingo da izen-emotea" azaldu deutso BEGITURI Amagoia Villanueva Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Teknikariak.

Beste aldetik, izen-emote galdegia sinplifikau eta laburtu egingo da, izen-emotea errazteko.



Zeberio eta Artea arteko oinezkoentzako bidearen Zeberioko zatia amaituta dago

Ermitabarririk Sarasolaraino, Arteako mugaraino, kaltzada errealaren errehabilitazioa amaitu dau Zeberioko Udalak.

Erredakzioa

Arteako Udalak be, 150 metroren faltan, aurreko legealdian egin eban bere zatia. Falta diran 150 metro horreek gaur egungo errepidetik doaz, hortik doa-ta kaltzada erreala. Errepidea ezin danez moztu, bazterbidea egitea ebatzi eban Arteako Udalak eta lur horreen jaubeagaz ipini zan kontaktuan. Adostasunik lortu ez eta Udalak eta Aldundiak desjaubetze faseari ekin deusie. Horrek atzerapena ekarri dau eta leitekena da, zati hori amaitzea 2026ra arte.

Kaltzada errealak garrantzia handia izan eban sasoi baten, Zeberio, Bilbo eta Gasteizegaz lotzean ebalako. 1500 urtean baegoan kaltzada hori eta hori zan bide nagusia Ugaotik Arteara. Ugaon, bat egiten eban Bilbotik Urduñara joian kaltzadeagaz eta Artean, Arratiatik Gasteizera joianagaz. Oingo errepidea 1820ko hamarkadan egin zan.

Egun, Zeberio Arratiagaz lotzea

oinetzko eta bizikletarietzako bideagaz sano aukera ona litzateke, momentu honetan kotxea dalako Zeberiotik urteteko ia aukera bakarra. "Amaituten danean, aukerea egongo da oinez joateko ez Arteara bakarrik, baita Igorrera, Areatzara edo Zeanurira be, ze Arteatik badago leku horreetara oinez joateko modua" adierazo eutsan BEGITURI Ekain Goti Zeberioko alkateak.

Artea

150 metroren faltan, Arteako zatia be eginda dagoala eta erabilten dala azaldu deutso BEGITURI Gorka Beitia zinegotziak. "Zeberioagaz

batera adostu genduan ibilbidea aurreko legegintzaldian" dino, eta kaltzada erreala errehabilitau eta Maurizia bidea izena ipintea ebatzi zan. Kaltzada erreala Sarasola partean, gaur egungo kaminotik doa 150 metro inguru eta eginda dagozan zati bien lotunea egiteko, horren bidebazterretik bidea egin gura dau Arteako Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzeagaz. "Next Generation funtsetan sartu zan ibilbidea, eta seinaleztatu eta atonduteko dirulaguntzea eskatu genduan. Dirulaguntza hori badago eta 2026a baino lehenago egin behar da".



LEMOA

Mobikortasun arazoak dituenentzako tresnen aurrez aurreko salmenta eta zerbitzu teknikoa dagoz Lemoan

Erredakzioa

Gauzak asko aldatu dira 1990eko hamarkadatik, eta egun, mobikortasun arazoak daukien ez dira etxean geratzen euren mundua leiho batera mugatuta, kalera urteten dira eta bizimodu askoz autonomoagoa egiten dabe. Horretan laguntza handia emoten dabe mobikortasun premia baxotxera egokitutako tresnek: mobikortasuna hobetuteko bizikleta estatikoetatik hasita, ohe artikulatuetara, scooter eta gurpildun aulki elektriko zein manualetatik pasauz. Lemoan, tresna honeen aurrez aurreko salmenta eta zerbitzu teknikoa eskaintzen dauan Ortomobility dendea zabaldu eban udabarrian.

Online erosketei alternatiba moduan, eta Bizkaia osoan zerbitzua emon guran, Bizkaiaren

erdian, zentro geografikoa izan daitekenatik hur, Lemoan zabal-dutea dendea ebatzi ebela dinoe Ortomobilitytik, ahalik eta jente gehien hurreratuteko. Gainera, aurrez aurrekoan, zerbitzua personalizauagoa da eta "personen arteko tratua eta hartu-emon" be emoten dira.

Erosketetarako aulkidun karroak

Mobikortasun arazo barik be, bizimodua erosoago egiten di-

tuen gauzak badagoz Lemoako dendan. Esate baterako, bizikleta estatikoak, eliptikoak edo aulkia daukien erosketak egiteko karroak, dendan ilarea egon ezkerro, jesarri ahal izateko. Karro honeetako bat, zozketatuko dau BEGITUK. Urri bigarrenaren 19an *begitu.eus* webgunean, Twitterren (X), Facebook-en eta Instagramen honen barri emon eta karroaren zozketan parte-hartzeako jarraibideak emongo dira.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Bildurra protagonista Arimen gauean

Gurean ia galduta egoan tradizino bat berbiztu dau Ameriketako *Halloween* ohituren globalizazioak. Izan be, gurean be hustu egiten ziran kalabazak edo arbiak eta kandelak ipinten ziran barruan, eske errondea be egiten zan eta sorgin edo zonbi disfrazau beharrean, trapu zaharrakaz egindako mozorroak jantzen ziran.

Erredakzioa

Pantailen eraginagaz, umeek *Halloween* ospatuten hasi ziran oin dala urte batzuk gurean be eta horren aurrean, Euskal Herriko tradizino berbiztu eta hemengo erara ospatu gura dabe herri askotan. Arratian be urri bigarrenaren 31n, batzuk disfrazauta eta beste batzuk mozorroa jantzita, gaua, negua eta heriotza ospatuko dabe batzuek *Halloween*-en erara eta beste batzuek Gau Baltzaren erara.

Arteakoek, euskal tradizioari eutsiz, eske erronden ostean, jentea gaztainak jateko batzean zala-ta, sasoiko jateko honeri emon gura deusie euki dauan garrantzia. Holan, zapatuan, hilak 28, Arimen gauean erreko dabezan gaztainak batzera joango dira Arteakoak umeakaz; eta kirikiñausi bat be ikusiko dabe, antxina udagoieneko frutu honek eukan garrantziaren lekuko. Hilaren

31n, Arimen Gauean, mozorroak jantzita eske errondea egingo dabe eta, plazan, gaztainak erre eta jan egingo ditue.

Igorren Arimen gaua berreskuratzeko asmoagaz antolatatu ditue iluntze eta gau horretako jarduerak. Kultur Etxeko plazan, karpa bat egongo da eta han tailerrak, ipuin kontalaria, gaztaina jana eta Arantzarte jantza taldeagaz jan-



tzak egongo dira.

Ludoteka eta Gaztelekuetan

Herri askotako ludoteka eta gaztelekuetan, gai honen inguruko jarduerak egingo ditue. Bedian, esate baterako, Gau Baltza, ludotekan eta liburutegian ospatuko dabe umeek. Ludotekan, tailerrak egongo dira 17:15etik 18:15era, eta 18:30etik 19:30era, *Gau Beltza* izeneko kontakizuna egingo dabe Autu Mautu ipuin kontalarietara eta 19:30ean, Xanduli, manduli emon goxokiak guri! gozoki eske urtengo dira umeak.

Gau Baltza

"Udagoienetik negurako egun gero eta ilunagoen bueltan, errituak egin izan dira Europa osoan, baita Euskal Herrian be. Gurean be badira kontakizunak, kalabazak edo arbiak hustu, arpegi itxurea emon, kandela txiki bat sartu eta bide bazterretan argizatuta ipinten ziranekoak; gaua, bildurra, gozokiak, gauetz lagunakaz ateratzea, mozorroak..." dinoe webgunean Euskaltzaleen Topagunekoek, euskerarako garrantzitsutzat joz.

ARRATIA

Arratia Institutuko bost ikaslek parte hartu dabe Santanderren osasun mentaleko jardunaldietan

Erredakzioa

Atzen urteotan adin txikikoen artean, ansiedade, depresino, autolesino eta suizidioen gorakadeagaz kezkatuta, Pantallas Amigas alkarteak, gazteen osasun mentala eta ondoizate emozionalaren gaineko jardunaldiak antolatatu ebazan urri bigarrenaren 5ean, Santanderren, *Konektutako nerabezeroaren osasun mentala eta ongizate emozionala zaintzen* izenpean. Bertan hainbat adituk hartu eben parte; tartean, Mar España Datuak Babesteko Espainiako Agentziako zuzenda-

ria, Belen Andrade UNICEFeko Eskubide Digitalen arduraduna eta Miguel Escassi Googleko politika publikoen arduraduna, batzuk aitatzearren.

Arratia Institutuko DBH4ko bost ikaslek be hartu eben parte gazteen ikuspuntua azalduz. Andere Bouza, Aitana Prieto, Aizea Garcia, Malen Bilbao eta Uxue Romero izan ziran bertaratu ziran ikasleak. Ikasleok Zibermanager proiektuko kideak dira eta beste 14 ikaslegaz batera, materiala prestatzen dabiz Igorreko eskolan LH6ko ikasleei pantailen erabile-
ra arduratsua azaltzeko.



DIMA

Ogiaren inguruko ondare immateriala erakutsiko dabe Antzastin hilaren 21ean



dien barruan dago. Aurten, bizirik dagoan ondare immateriala da kanpainearen gai nagusia eta ogia egiteko gure baserrietako antxinako modua, bizirik dagoan ondare immateriala da. "Sasoi baten gure baserrietan garia eta artoa ereiten ziran etxerako ogia egiteko eta astero, labesua biztuten zan. Ahoz aho transmitidu diran lan prozesuak dira. Gainera, euskal tradizioan ogiaren inguruko hainbat siniskera, ipuin eta kantu jaso dira" dinoe antolatzaileek.

Erredakzioa

Ogi baltza baino baltzago, ogi eza titulupean, Dimako Antzasti Euskaldunon Etxean, urri bigarrenaren 21ean, bertsoak, berbaldia, bideoa eta ogi dastaketea egongo dira. Lekuak mugatuak diranez, aldeaz aurretik emon behar da izena kultura.dima@bizkaia.org helbide elektronikoan edo www.ondareabizkaia.eus webgunean.

Ondarearen Europako Jardunal-

Bertsoak, berbaldia, bideoa eta ogi dastaketea

Antzasti Euskaldunon Etxeak badauka ogia egin eta erreteari dedikatutako espazio berreskuratua eta bertan egingo dabe berba ondare honen inguruan. Partaideak 12:00etan batuko dira eta ondo etorria egingo jakie. Ostean, Dimako Bertso Eskolako kideek bertsoak bota eta Abel Ariznabarretak berbaldia egingo dau. Bideo bat ikusteko eta ogi desbardinak probetako aukerea be egongo da.

LEMOA

Karabie Gaztetxearen XXIV. urteurreneko jaia ospatuko dabe hilaren 28an

Erredakzioa

Harriketarrak Lemoako Gazte Asanbladeak, karabi zaharrean lehenengo Gaztetxea egin ebanetik 24 urte bete dirala ospatuko dabe urri bigarrenaren 28an. Hori dala-ta, azokea eta bazkaria prestatu dabe Gaztetxearen ondoko kantxan eta gauean, Ezkerraldeko punk-rock Quaaluders eta Bilboko Txopet taldearen kontzertuak egongo dira Gaztetxean; eta ostean dj-a.

Lemoako Gazte Asanbladak 1999 urtean sortu eban Karabie Gaztetxea. Harrobian egoan txabola bat hartu eben horretarako eta horregaitik ipini eutsen Karabie izena. Urtebete beranduago erre egin zan txabolea eta harrezke-

rozтик eskolak izandako Udalaren eraikinerara aldatu ziran gazteak.

Egitaraua

11:00etatik 14:00etara, inguruko ekoizleen azokea, Gaztetxe ondoko kantxan.

15:00etan, bazkaria, Gaztetxe ondoko kantxan. Txartelak salgai 18an (19:00-20:00) eta 19an (18:00-19:00). Gaztetxean.

22:30ean, kontzertuak: Quaaluders eta Topet taldeak eta dj-a. Gaztetxean.



LEMOA

Ilunion Lavanderia enpresako beharginak mobilizazioetan hasi dira hitzarmenaren alde

Erredakzioa

Beharginek urteak darozala gitxieneko soldata jasoten eta euren lan baldintzak penagarriak dirala salatu dau ELA, LAB eta CCOO osotutako Ilunion enpresako langile batzordeak eta hitzarmena hobetuteko mobilizazioetan hasi dira beharginak. Greba egun bi, urri bigarrenaren 10 eta 11n, deitu ebezan eta beste greba egun bi dagoz deituta, hilaren 17an eta 18an, akordiorik ez bada lortzean. Urri bigarrenaren 3an, elkarretaraztea egin eben lantegiaren aurrean.

Langile batzordeak jakitera emondakoaren arabera, azkeneko mahai negoziatzailean, en-

preseak ez eban hobekuntzarik eskaini, ezta eskaintza ekonomikorik egin. Hile biren ostean, negoziatzaileek ez egoala ikusita, langile batzordeak mobilizazioetan hastea ebatzi eban. KPla baino gehiago igotea soldatak, osagarriak hobetzea eta urteko jardunaldia txikitzea eskatzen dabe beste hobekuntza batzuen artean.

Ilunion Lavanderia

Ilunion Lavanderiak Lemoan dauka lan zentro nagusia. Bilboko Basurtuko ospitalean eta Misericordia erresidentzian be langileak ditu. Guztira, 120 langile ditu Bizkaian, eta hotelei zein ospitaleei emoten deutse zerbitzua.



ARTEA

Liburu aurkezpena eta berbaldia Artean

Erredakzioa

Arteko Kafrangak andra taldeak antolatuta, Leire Milikua Larramendik *Lur gainean, itzal azpian* bere liburu aurkeztu eta berbaldia egingo dau urri bigarrenaren 26an, 19:00etan, Arteko Kultur Etxean.

Lisipe saileko 12.a da *Lur gainean, itzal azpian* saiakerea. Liburuak, andra nekazarien parte hartzearen egoera hurreratzeko asmoa dauka: batetik, erakusteko andre sistema patriarkaleko edozein arlo eta eremutan dituen egiturazko ezaugarriak partekatzen dituela erakusteko; eta, bestetik, ikusi arazoteko zelan "nekazari izakereak zapalkuntza geruza gehigarriak dakarriezan testuinguru urbanozentrista eta kapitalistan".

Leire Milikua

Leire Milikua Larramendi (Abadiño, 1985), arkitektoa da, Agroekologian eta Genero Bar-

dintasunean espezializata. Aldiri, arkitektura aldizkariko sortzaileetako bat be izan zan.

Hainbat artikuluren egile, *Lur gainean, itzal azpian* liburuaz gainera, *Landa-eremua EAEn: egungo argazkia, etorkizuneko aukerak* kaleratu eban 2015ean.



KAFRANGAK

IGORRE

Heriotza eta doluaren inguruko jardunaldiak antolatu ditu Liburutegiak

Zemendiaren 3an eta 4an izango dira Igorren.

Erredakzioa

Lehenengo egunean, barikuan, 19:00etan, *Mendian hil, hirian hil* dokumentala eskainiko da eta filmaren zuzendariak berbaldia egingo dau Lasarte Aretuan. Hurrengo egunean, 11:00etan, heriotza eta doluaren gaineko mahai-ingurua egongo da liburutegian. Bertan, Itsaso Bengoetxea Euskal Autonomia Erkidegoko Eutanasiaren Berme eta Ebaluazio Batzordeko presidentea eta Marta Sariñena, doluan espezializaturako psikologo eta terapeuteak hartuko dabe parte.

Mendian hil, hirian hil dokumentala, BBK Mendi Film Festival-en egon zan 2020an. Dokumentalak hildako pertsonen senideen adierazpenak, gertatutakoaren onarpena eta oroimen mingarriak gaituzteko itxaropena erakusten ditu. Medikua ofizioz eta mendizalea afizinoz dan Iñaki Peña zuzendaria be egongo da hiletako modu bi horreen gainean berba egiteko. Iñaki Peña zainke-

ta aringarrietako medikua da Debagoineko Ospitalean.

Hurrengo egunean, zapatu goizean, Itsaso Bengoetxea igorretarrak, zainketa aringarrietan espezializaturako medikuak, eta Marta Sariñena, galera, dolu eta trauma prozesuetako laguntzetan espezializaturako psikologoak, hartuko dabe parte mahai-inguruan, trantze gogor honen gaineko euren esperientzia profesioanalarik konpartitu eta publikoaren kezka eta zalantzei erantzuteko.

3 AZAROA AROKORRIK IGORREKO LASARTE ARETOKO 19:00
Dokumentala eta hitzaldia
Documental y conferencia posterior

4 AZAROA AROKORRIK IGORREKO UDAL LIBURUTEGIA 19:00
Mahai-inguru: dolu eta heriotza
Mesa redonda con participación abierta en la biblioteca sobre la muerte y el duelo

Iñaki Peña
Medikua ofizioz, mendizalea afizinoz. Mediku ofiziala, medikua per afizinoz.
Zainketa aringarrietan lan egiten du Debagoineko Ospitalean (Iruñean).
"Hiru Hutsak", "Sindiatu" "Sarekin Bidean" eta "Mendian Hil, Hirian Hil" dokumentalen zuzendaria eta gidatzailea. Director y guionista de los documentales.

Itsaso Bengoetxea Martínez
Gaitzaketa Opatzaile senideak aringarrietako mediku espezialista.
Mediku espezialista en Gestión Perenne del Hospital de Galdakao.

Marta Sariñena
Psikologoa eta Terapeuta Transpersonala. Calera, dolu eta trauma prozesuetako laguntzetan espezializata.
Psicóloga y Terapeuta Transpersonal. Especialista en el acompañamiento en procesos de pérdida, duelo y trauma.

Monzónko (Pascual) Oñarri Lagunzako Elkarteko zuzendaria.
Director de la Asociación de Ayuda al Duelo de Mondragón.

BEDIA

Arratiako Andra Sortzaile eta Ekintzaileen III. Azokea

Erredakzioa

Hilaren 22an, 11:00etatik 14:30era arte, Bediako plazan Arratiako andra sortzaile eta ekintzaileek euren produktuak ipiniko dabez ikusgai eta salgai. Arratiako sare ekonomikoan, andren lana begi bistan ipintea da Arratiatik ibiltari dan azoka honen helburua.

Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasan Zerbitzuak eta Bediako Udalak alkarlanean antolatu dabe azoka honen hirugarren edizioa.

Merkadu honetan, lehen sektoreko eta artisautzako produktuak edota Arratia eta inguruko andren edozein motatako negozioak erakusteko, 15 mahaitik gora ipiniko ditu Arratiako Udalen Mankomunitateak. Besteak beste, Areatzako Saioa Larrearen zeramikea, Lemoako Zuriñe Etxebarriaren kazuelak edo Zeanuriko Silvia Pine-daren infusinoak erosi ahal izango dira bertan.

Hirugarren edizioa
Urtean-urtean Arratiako herri

Arratiako Andra Sortzaile eta Ekintzaileen III. Azoka

Emakumeek bultzatutako proiektu ezberdinak ezagutuko ditugu BEDIAN

baten egiteko asmoagaz sortu zan oin dala hiru urte andra sortzaile eta ekintzaileen azokea. Lehenengo edizioa Diman egin zan eta bigarrena Areatzan, eta andren ekintzailetzearen ugartasuna ikusi ahal izan zan. Izan be, zidarrezko bitxiak, frutak eta barazkiak, gozoak, ogia, euskal pastela, artelan grafikoa, umeentzako erropak, euskal jantziak eta naruzko produktuak egon ziran ikusgai, beste produktu eta zerbitzu askoren artean.

amorrorrtu
taberna - jatetxea - ostalua

OSTATUA
638 712 523

Esbiate 1, - 48330 LEMOA - Biskaiak
www.alejamientolemosa.com
info@alejamientolemosa.com

ZEBERIOKO

ZeberioK0 jaialdiak 15 kontzertu eta jarduera ugari dakar zemendiaren lehenengo astegoienean

Zemendiaren 3tik 5era bitartean ZeberioK0, Herriko Fest jaialdiaren lehen edizinoa izango da, Zelako Kultur Ideiak alkarteak antolatuta, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzeagaz Next Generation-EU funtsen bidez eta Zeberioko Udalaren laguntzeagaz. Antolatzaileen arabera, jaialdi honek Euskal Herriko landa-eremuetako ekosistema kulturalaren aberastasuna balioan jartzea dauka helburu nagusizat eta bertan diharduen eragile eta sortzaileen dinamizazioa eta barrikuntza sustatzea.



Amparo Sanchez Amparanoikiak kidea.

Erredakzioa

Zelako Kultur Ideiak enpresearen proposamena heldu jakiera eta Udalak onartu ebala, dino Ekain Goti Zeberioko alkateak. "Eurek antolatuten dabe dana, guk ez dogu antolatu ezer, lagundu baino ez. Barikuan hasita eta domekara arte, herriko gela guztiak okupauta dagoz. Danerik dago, egunez hasita, 11:00etan edo hasten dira programazioak eta egun osoan zehar gauzak dagoz eta gauean kontzertuak" azaldu deutso BEGITURI. Antolakuntzeak, jaialdian 1.500 persona inguru egotea espero dauala gehitu dau eta herrira hainbeste kotxe ez sartzeko, au-

Eguneko jarduerak
debalde izango dira, jente guztiari irekiak. Arrasti-iluntzean hasiko diran kontzertuetarako, barriz, eguneko sarrerak edo astegoieneko bonuak erosi beharko dira

tobusak ipiniko ditue Ugao, Artea eta Igorretik. Zubialden izango da dana eta kontzertuetarako karpabat egongo da.

Eguneko jarduerak debalde izango dira, jente guztiari irekiak. Arrasti-iluntzean hasiko diran kontzertuetarako, barriz, eguneko sarrerak edo astegoieneko bonuak erosi beharko dira www.herriko-fest.eus jaialdiaren webgunean, Musikaze plataformearen bidez.

Mahai-inguruak

Jaialdiak hausnarketarako eta eztabaidarako gunea be izan gura dau eta mahai-inguru bi egongo dira zapatu goizean Hogar izeneko aretoan. Lehenengoan, Xabier Madariaga Zeberioko kazetariaren gidaritzapean, 10:30etik 12:00etara kolektiboa landa-eremuan gaiaren inguruan izango da eztabaida. Parte hartuko dabe Maskilu, Arratia-Nerbioiko baseritar eta ekoizleek osotutako konserbera kolektiboak, Faktoria Aiaraldeko gizarte ekimeneko irabazi asmorik bako kooperatibek eta Errigora Nafarroa hegoaldeko ekimen herritarrak.

Bigarren mahai-ingurua, 12:15etik 14:00etara bitartean izango da eta hau be, Xabier Madariagak gidatuko dau. *Artearen eginkizuna landa-eremuetako gizarte-kohesioan* izenburupean esperientziak eta hausnarketak partekatuko ditue esparru honetan erreferenteak diran hiru alkarteetako kideek: Muturbeltz, Karrantzako ardiaren alde lan egiten dauan alkarte agroekologikoa eta artistikoa; MAR, Aragoiko landa-ingurunean andra artisen eta artisauen plataformea eta DAR, Valentziako komunitateko andra artista bisualak bateratzen dituan alkarteak. Mahai-inguruak jarraituteko aldi bereko itzulpen zerbitzua eskainiko da eta adin txikikoak itxi ahal izateko zaintza zerbitzua egongo da debalde. Era berean, bertaratu ezin diranek *streaming* bidez jarraitu ahal izango ditue berbaldiok zuzenean www.herrikofest.eus webgunearen bitartez.

Egitaraua

Urri bigarrenaren 30etik, astelehena, zemendiaren 5era bitartean, ZeberioK0 jaialdia amaitu arte, margo eta eskultura erakusketa egongo da ikusgai Zeberioko udaletxeko batzar aretoan. Bertan, Iker Mugarra Zeberion bizi dan Trapagako sortzailearen pintura errealistak, Nieves Barretxea bilbotarraren margolanak eta Jabi Putxetas zeberioztarraren eskultura-lanak ikusi ahal izango dira.

Zemendiaren 3an, barikuan, jaialdiari hasikerea emoteko, sormen ariketa berezi eta parte-hartzailea abiatuko da. Izan be, 17:00etatik 19:00etara, *Zeberio Kantuz* bideoklipa grabauko dabe Zubialde auzoko aparkalekuko karpan. Bertako herritarrek eta eragileek Zeberioentzat beren beregi sortutako abesti eta koreografia bat jantzatu eta abestuko dabe eta domekan, bideo-kliparen proiektzio publikoa egingo da, 12:30ean.

19:30ean, Zeberioko plazan, jantza-emonaldia egingo dabe Etzanderak Zeanuriko jantza taldekoek. Talde hau, euskal jantzen bidez Euskal Herriko kultura eta ohiturak zabaltzen diharduen اندrez osotuta dago.

21:00etan hasiko dira kontzertuak karpan. Lehenengoak Basatitiak izango dira, rap-aren munduko andra erreferenteen taldea; tartean, La Basu, Berta Vitter Sweet edo Ipar Glow lango izen ezagunak, besteak beste. Ondoren, 22:30ean, Balmasedako Maria Rivero abeslari eta konpositorearen txandea izango da eta ZeberioK0-n aurkeztuko dau bere lan barria *Lerro paraleloak* izenekoa.

Gauerdiko hamabietan helduko da Bartzelonan bizi dan Green Valley talde arabarraren txandea, reggae eta dancehall eritmoakaz. Eta ZeberioK0 jaialdiaren lehen jardunaldia amaituteko, 01:30etik aurrera Woman Soldier igongo da taulara. Matah, High Paw eta Pitch Up kataluniarrek hainbat zapoz osotutako eritmo sorta jantzaga-

ria eskainiko dabe: root-ak, Rub-a, Dub eta UK Dub Style.

Zapatuan, zemendiak 4, azoka batek emongo deutso hasikerea egitarauari. 10:00etatik 15:00etara, Arratia bailarako artisauen eta ekoizleen produktuak ezetu eta erosteko aukerea egongo da: erropa birziklatua, ilustrazioak, belarritakoak, zeramikea, agrokosmetikea, intsentsua eta tea, umetxoentzako erropia, narrozko eta zidarrezko osagarriak, eta abar.

Aldi berean, 11:00etatik 13:00etara eta plazaren inguruetan, Hekthor Folk musikari gasteiztarraren tailerragaz gozotutako aukerea egongo da. Erritmoren garrantzia azalduko dau lehenik, eta ondoren, perkusino instrumentu tradizional nagusiak erakutsiko ditu: mintzak, arraspak eta idiofonoak. Albokeagaz eta elektronikeagaz batera, hainbat abesti joko ditu, eta amaitzeko, ikusleek musika tresnak hurretik ikusi eta joteko aukerea izango dabe.

14:00etan Nerea Ibarzabal, Onintza Enbeita, Xabi Payá eta Peru Abarrategi bertsolariek omenaldia egingo deutsee Zeberioko artisauei bertso saio berezi baten bidez. Gero, 17:00etan, Orkresta Elektrotunak herriko kaleak animauko ditu perkusino, haize eta gailu elektrikoaren bidez. "Rocka, ska eta antxinako beste estilo batzuk, saltsa gazi-goza eta poteo ganberroagaz marinabata".

20:00etan hasiko dira kontzertuak karpan. Lehenengoak, Janus Lester talde nafarra izango da. Publikoa jantzan ipiniko dabe euren eritmo sinkopauak, arima baltza, elektronika eta moldaketa guztiz originalak egiten dituen 1980ko edo 1990eko hamarkadako *dance* cearen oinordekoak. 21:30ean, Iruñeako Skabidean taldea izango da, ska eta reggae eritmoz betetako proposamenakaz. 23:30ean, Granadako Amparanoia taldearen txandea izango da. 25 urtez mes-tizaje eta fusinoaren erreferente bilakaturako talde honek kontzertu bat eskainiko dau ZeberioK0



Ses abeslaria.

jaialdian, Artistas del Gremio taldeagaz hasi barri daben biraren barruan. Eta zapatuko egitarauari amaiera emoteko, zuzenekoetan daukan intensidadearengaitik ezaguna dan talde bat egongo da, Bad Sound System irundarrak, hain zuzen be. Euskal Herrian talde batek Jamaikako kultura eta musika egiteko modua ulertu eta onartu badau, talde hori Bad Sound System da, duda barik.

Domekan, *Brujas 2.0* tailer ibiltariak emongo deutso hasikerea 11:00etan egitarauari. Zeberio ingurueta sendabedarratar hurreratzeko aukerea emongo dau tailerrak: bedarron ezaugarriak eta onurak eta egunerokotasunean dituen aplikazioak ikasi ahal izateko. 12:30ean, Zeberio Kantuz

bideoklip herrikoia proiektino publikoa egingo da karpan, eta astegoen osoan zehar izandako argazki lehiaketaren sari banaketea egingo da. 13:30ean, Unai Elorriaga idazleak eta Josu Aurrekoetxea musikariak *Odola kantari* lan barria estreinauko dabe ZeberioKOn. Musikearen eta literaturearen arteko maitasun hartu-emonaren bidez sortutako proposamen eszenikoa da hau; odolaren, gerrearen eta heriotzearen aldeko kantua.

17:00etan hasiko da Burbuilak taldearen kontzertua. Izar Mendiguren eta Irati Mendiguren musikari laudiotarrek eta Urduñako Izaskun del Cerro pianistek osotuten dabe taldea. 18:00etan, jaialdiaren atzen kontzertuagaz

amaituko da ZeberioKOn. SÉS, Galiziako musikagile eta ekoizleak oso proposamen personala

taularatuko dau. Bere estiloan, rock'n rolla, galiziar folklorea eta Latinoamerikako autore-kantaren

kadentzia nahasten ditu, punk jar-kera eta erraietatik ateratako letra zintzo eta landuakaz.




Green Valley.



MENDIA

Zeanurik hartuko dau Arratia-Otxandio-Zeberio-Ubideko Mendizale Eguna

Urri bigarrenaren 29an izango da Arratia, Otxandio, Ubide eta Zeberioko Mendizale Egunaren XXII. edizioa. Aurten, Zeanuriko Joko Alai taldeari egokitu jako antolakuntzea eta 15,8 kilometroko ibilbide zirkularra prestatu dau; urtekerea eta helmuga herriko plazan daukana.

Erredakzioa

Urtero lez, Mendizale Egunak Arratia, Ubide, Zeberio eta Otxandio mendizaleak batuko ditu. Joko Alai, Ganzabal, Arginatx, Mirugain, Austarri, Amexier eta Lamino mendi taldeetako kideak eta izena emoten dabenak Zeanuriko plazan batzera deituta dagoz, goizeko 08:30ean.

Partaideak, plazatik urtengo dira (174 m) eta Altzua eta San Justotik pasauta Zanburura (752 m) aileguko dira. Ondoren, Uribe, Karkabitxueta eta Zulaibarretik pasauko dira plazan amaituteko. Karkabitxuetan horniketa puntu bat egongo da eta helnugan be, jana eta edana egongo da partaideentzat.

Igaz, Areatzako Lamino mendi taldeak antolatu eban eguna eta 120 mendizale batu ziran.

Izen-emoteak

Mendizale egunerako izen-emotea herri bakoiteko mendi taldean egin behar da. Hau da, Arantzazun, Arginatx mendi taldean, 626 144 075 telefonoan; Areatzan, Lamino mendi taldean, 646 355 550 telefonoan; Le-

moan, Ganzabal mendi taldean, 675 701 359 telefonoan; Ubiden, Amexier mendi taldean, 696 744 988 telefonoan; Zeanurin Joko Alai mendi taldean, 634 430 543 telefonoan eta Zeberion Austarri mendi taldean, 656 415 597 telefonoan.



Zeanuri.

Argazkia: Inocencio Goikuria.

MENDI LASTERKETEAK

Lemoatx Trail mendi lasterketetarako izen-emotea aurrera doa

Garagarrilaren 17an zabaldu zan Lemoatx Trail lasterketa eta martxetarako izen-emotea eta, gehienezko kopurua lehenago ez bada beteten, zemendiaren 12ra arte egongo da zabalik buscametas.com webgunean. Zemendiaren 19an jokatuko da aurten Lemoatx Trailen zazpigarren edizioa.

Erredakzioa

Lemoako Eguzkitza Meabe ikastetxean izango dauz urtekerea eta helmuga. Lehenengoak urteteten, martxa luzea egin behar dabenak izango dira, 08:00etan. Martxa honek, 24 kilometro eta 1.300 metroko desnibela dauka, lasterketa luzeak legez. Lasterketa luzeko korrikalariak baina, 09:15an urtengo dira.

Ostean, 16 kilometroko lasterketa egingo dabenen txandea izango da. Honek 10:00etan urtengo dira 16,4 kilometro eta 910 metroko desnibela daukan lasterketa egiteko. Atzenik, 10:45ean, 8 kilometroko martxa familiarra egin gura dabenak abiatuko dira.

Egun horretan jai giroa izan-

go da Lemoako eskoletan eta aukera egongo da taloak jateko eta mendiko materiala erosteko ipiniko diran salmenta postuetan.

Urri bigarrenaren 9ra arte, Lemoatx Traileko probaren baten, 474 personak eukien izena emonda.

Etiketa berdea

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuten dauan Lemoatx Traileko probak, Lemoa, Amorebieta-Etxano, Dima eta Igorre udalerrietako lurretatik pasetan dira, Belatxikieta (661 m), Lemoatxa (363 m) eta Aspunta (365 m) tontorretatik, hain zuzen be. Edertasun handiko lekuak dira, Urkiolako Parke Naturalean dagoz batzuk, edota balio historiko handikoak dira,

gerra zibileko lubaki eremutik be pasetan dira probak eta.

Lemoatx Trail, Etiketa Berdea, lasterketa etikoen manifestua sinatu dabenenetako bat da. "Esan beharra dago Lemoatx trail taldea, Ganzabal Mendi Taldeak beti izan ditu natureagazko zaintza eta errespetu printzipioak" azaldu deusie BEGITURI antolakuntzatik.



MARATOI TXIKIA

Arratiako 42. Maratoi Txikia udabarririk udagoienera pasau dabe

Urri bigarrenaren 22an izango da aurten Arratiako Maratoi Txikia, 11 kilometroko lasterketa.



Erredakzioa

Edade bakoitxari egokitutako distantzia dagoan arren, Zeanuri eta Igorreran arteko 11 kilometroko emoten deusie izena Arratian klasiko bihurtu dan lasterketa honeri.

Arratiako eskola eta institutu guztietako guraso alkarteek batuta, hartu dabe aurten, 2023an, Maratoi Txikia antolatuteko erreleboa. Ha-ta guzti be, aldatu dan gauza bakarra, bagiletik urri bigarrene-ra pasetea izan dala jakinarazo deusie BEGITURI antolakuntzatik. Urri bigarrenean ipintea ebatzi zan "bagila ez dalako oso data ona eta askotan Euskal Eskola Publikoaren jaiagaz bat egiten ebalako".

Nagusiak Zeanuritik urtengo dira 10:15ean, Zeanuri eta Igorre

arteko 11 kilometroak egiteko. Izena, Igorreko kiroldegian emon behar da 08:45etik 09:15era, eta Igorretik Zeanurira joateko autobusa ipiniko dau antolakuntzeak.

2006tik 2010era jaiotakoek, Arteatik Igorrerara ibilbidea egingo dabe Arteatik 10:30ean urtenda. Izen-emotea Arteako plazan egin behar dabe 09:30etik 10:15era, egunean bertan. Igorretik Arteara joateko be ipiniko dau autobusa antolakuntzeak.

Txikerrenek Igorren egingo dabe galapan. Izena eskolako aterpean emon behar dabe 09:00etatik aurrera eta lasterketak 10:00etan hasiko dira. 2011tik 2013ra jaiotakoek 1.300 metroko ibilbidea izango dabe; 2014tik 2016ra jaiotakoek 800 metrokoa eta 2017tik aurrera jaiotakoek 300 metrokoa.



Artxiboko irudia.

FUTBOLA

Binako bardinketea Lemoako Harrobi eta Arratia Bren artean

Erredakzioa

Hilaren 12an jokatu zan arratiarren arteko derbia eta bina bardindu eban Lemoako Harrobik eta Arratia Bk Arlonagusian. Gizonezkoen Arratia Ak galdu egin eban atzen jardunaldian Erandio Aren kontra etxean. Andrazkoen A eta B taldeek bardindu egin eban etxetik kanpo.

Jente asko eta ambiente itzela egon zan Lemoako Arlonagusia zelaietan Lemoako Harrobi eta Arratia B taldeen arteko norgehiagokan. Bi aldiz aurreratu zan Arratia 0-1 eta 1-2koagaz baina lemoaztarrek bardintzea lortu eban partidua. Aurreko astean ostera Lemoako Harrobik lehen garaipena lortu eban.

Lau jardunaldiren ostean Lemoako Harrobik 4 puntu ditu eta hamaikagarren postuan dago sailkapenean. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Ibaiondo Nerbioi taldearen kontra hilaren 21ean, arrastiko 18:00etan.

Arratia Bk ostera lau jardunaldiren ostean 5 puntu ditu eta hamargarren dago sailkapenean. Datorren partidua etxean jokatu dau Amorebieta B liderraren kontra hilaren 21ean, arrastiko 18:15ean.

Gizonezkoen Arratia A taldeak ostera hilaren 15ean jokatu eban Erandio A taldearen kontra eta 0-2 galdu eban. Arratiarrek galtzean

daben ligako lehen partidua da. Lau jardunaldiren ostean 7 puntu ditu Arratia Ak eta zortzigarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Igorreko taldeak Getxoren kontra hilaren 21ean, arrastiko 17:00etan.

Andrazkoak

Arratia A taldeak hilaren 15ean jokatu eban etxetik kanpo Burgos taldearen kontra eta husna bardindu eban. Sei jardunaldiren ostean 10 puntu ditu Arratiak eta bederatzigarren dago sailkapenean. Datorren partidua Urbietan jokatu dau Osasuna C taldearen kontra hilaren 21ean, arrastiko 15:45ean.

B taldeak be 15ean jokatu eban etxetik kanpo Bizkerre C taldearen kontra ligako bigarren partidua eta bana bardindu eban. Partidu biren ostean Arratia Bk puntu bat dauka eta hamaikagarren dago sailkapenean. Datorren partidua etxean jokatu dau Bizkeneskak taldearen kontra hilaren 22an, arrastiko 17:45ean.



PELOTEA

Berrogei jokalaritari batu ditu IMPACT PRO OneWall Txapelketeak Diman

Erredakzioa

Lur Ziarrusta izan zan txapeliduna, Ekhi anaiaren kontrako final estua irabazi ostean; 15-12 irabazi eban set biak.

Urri bigarrenaren 14 eta 15ean jokatu zan Dimako IMPACT PRO OneWall Txapelketea, modalidade honetako Euskal Herriko lehen klubak antolatuta, Rebotean OneWall Klubak hain zuzen be. Guztira, berrogei jokalaritari batu ziran zapatuko kanporaketa eta domekako fase finaletan eta irabazlea, etxeko Lur Ziarrusta izan zan. Ekhi Ziarrusta anaiaren kontra irabazi eban finala eta hirugarren eta laugarren postuan, Mikel Beldarrain arteaztarra eta Valentziatik etorritako Albert Giner izan ziran.

Holan, Lur Ziarrusta dimoztarrak Europako ranking-ean aurrera egiten segiduten dau eta hirugarren postuan dago. Baina horrezaz gain, bete da txapelketearen helburu garrantzitsua, OneWall pelota modalidadea ezetu arazotea. Izan be, Euskal Herrian oso hedatuta ez badago be, eskupelota modalidade zabalduena da mundu mailan eta astegoienean Diman batutako jokalariek erakutsi dabe, aurrera doala. Izan be, arratiar ugari hartu eban parte izentautakoez gainera: Mikel Aurrekoetxea (Lemoa), Beñat Etxeita (Zeanuri), Imanol Urigoitia (Zeanuri), Ibai Cimadevilla (Igorre), Ireber Eraña (Lemoa), Iker Etxebarria (Artea), Ander Varela (Lemoa) eta Oier Etxebarria (Igorre).

PELOTEA

Amai Aldai txapeldun Hiru Hiriburuak Txapelketan

Harmailak bete-beteta, Aldai eta Bergarak jantzi ditue txapelak, Garai eta Zabalarri 22-19 gailenduta.

Erredakzioa

Finala Bilboko Miribillako frontoian jokatu zan urri bigarrenaren 15ean, 2.800 persona aurrean.

Udan izandako eskuko arazoak guztiz osatuta, sano ondo jokatu eban dimoztarrak. Partiduak hiru zati izan eban. Lehenengoan, Amaia Aldai eta Arrate Bergara, 15-5 aurreratu ziran. Baina gauzak guztiz aldatu ziran ondoren. Aldaik egindako huts batzuei esker, Leire Garai jokoan sartu eta partidua

orekatzea lortu eban, markagailua 15-14an ipini arte. Partiduaren



atzen txanpan, arratiarrek hartu eban agintea barriro be, eta partidua 22-19 irabazi eban Aldaik eta Bergarak.

Finalik onena

Inoz bizi izan dauan finalik onena izan zala azaldu eutsan Amaia Aldaik ETBri partidua amaitu barritan. "Harmailak bete-beteta ikustean oindino uleak puntan ipinten jataz. Uste dot inoz bizi izan dodan finalik onena izan dala, duda barik eta oin disfrutetea toketan jata" azaldu eban txapeldunak.

Arratiako Andra Sortzaile eta Ekintzaileen III. Azoka

Emakumeek bultzatutako proiektu ezberdinak ezagutuko ditugu

BEDIAN

2023KO URRIAK 22
11:00 tatik 14:30tara

HERRIKO PLAZAN-
euria bada,
FRONTOIAN

ERDU,
GOZATU
TA GUREA
ZAINDU!

ZUZENEKO MUSIKA
ANIMAZIOAREKIN



ZINEKLUBA

Emakume filmak emongo deutso hasikerea Igorreko Zineklubaren oingo denporaldiari

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 19an hasiko da barriro Igorreko Zinekluba hilean behin, karteldegitik kanpo dagoan pelikula interesgarriren bat eskaintzen, eguenetan, 20:00etan, Lasarte Aretoan.

Pablo Larrain zuzendari txiletarraren *Emak* 2019ko pelikulea izango da lehenengoa. Sinopsiaren arabera, "Emak, jantzari gazte batek, Gastonengandik banandutea ebatzi dau, Polo, biek adoptau eta hazteko gai izan ez diran semea, adopzioan emon ostean. Valparaisoko portuko kaleetan desesperauta, Emak maitasun barriak

bilatzen ditu errua baretzeko. Baina hori ez da bere helburu bakarra, guztia berreskuratzeko plan sekretu bat be badauka eta".

Pablo Larrain

Pablo Larrain Matte (Santiago, 1976) zuzendari eta ekoizlearen pelikulek hainbat sari jaso ditue. Batzuk aitzearren, bere laugarren pelikulea, *No* (2012) Oscar Sarietarako aukeratuta izan zan; 2015eko *El club* filmak Berlinaleko Zidarrezko Hartza jaso eban eta 2017an Larraineko ikazitako *Una mujer fantástica* filmak Ingelese besteko film onenaren Oscar Saria eskuratu eban.

BERBALDIA

Sorginen gaineko berbaldia Zeanurin hilaren 19an

Erredakzioa

Mazala andra taldeak antolatuta, urri bigarrenaren 19an, 18:00etan, Josune Muñoz filologo eta ikertzaileak *Sorginkeria, sorgintasun ala sorgintza? Sorgin-ehiza Bizkaian* izeneko berbaldia emongo dau Arkotxan.

Bertan, sorgin ehizaren atzean egon ziran benetako errazoi politiko eta ekonomikoak aztertuko ditu. Horretarako, sorgina berbearen esanguratik abiatuta, akelarreen iruditeria, Inkisizioa eta orduko gizartea eta egoera politiko-ekonomikoak landuko ditu Muñozek.

LEHIAKETEA

Areatzako Udalak I. Argazki Lehiaketea abiatu dau 2024ko egutegia egiteko

Erredakzioa

Areatzako Udalak Argazki Lehiaketea ipini dau martxan, herriko txokoetan urte sasoi desbardineta ateratako argazkiak 2024ko egutegia egiteko. Lehiaketan parte hartzeako, hilaren 31ra arte bialdu daitezke argazkiak komunikazioa.areatza@bizkaia.org helbide elektronikora. Aukeratutako 12 argazkiak 2024ko egutegian agertuko dira eta irabazleek opari bana jasoko dabe. Sari banaketea Euskerearen Eguneko egitarauaren barruan egingo da.

Partaide bakotzak argazki bi bialdu leikez gehienez. Argazkiak formatu horizontalekoak izan



behar dira eta mezuan egilearen datuak eta argazkia noz eta non atera dan adierazo behar da. Lehiaketara aurkeztutako argazkiak Areatzako Udalaren jaubetzakoak izango dira, baita euren erabilera, erreproduktzio, erakusketa eta hedapen eskubide guztiak be, beti be, egilea aitaututa.

LABAYRU

Igaz hasitako kulturartekotasun proiektuan jarraituko dau Labayruk

Proiektuz beterik eta saria jasota ekin deutso Labayruk 2023-2024 ikasturteari. BEGITU, Igone Etxebarria Labayru Fundazinoko presidenteagaz egon da horretaz berba egiteko.

Erredakzioa

Euskerearen irakaskuntza da bere ardatzetako bat; jarraiko lana egingo dabe Lexikografian; Ondarean hainbat proiektu ditue eta igaz hasitako kulturartekotasunean sakonduko dabe. Pasau dan hilean, Labayruk Fair Saturday saria jaso eban, euskal kultureari balio soziala emoten egindako ibilbidea aitortzeko.

Fair Saturday saria jaso dau Labayruk. Zein da Labayruren ekarpena mundu justuago bat egiteko?

Fair Saturday Fundazioak egiten dauana da, kultura ekarri gizartearen azalera, agirira, mundu justuago, garatuago eta bardintuago bat sortzeko bitarteko moduan. Ze esan lei mundua ekonomiagaz mobiduten dala baina kultureak zeresan handia dauka eta ikuspegi horretan mobiduten dira. Hori dala-ta, saritu egiten dabez apur bat eurek ezetuten dabezan esperientzia diferenteak, mundu mailan eta gizartean, kulturaren bitartez inpaktoa izan daben esperientziok saritzeko. Aurten, gu saritu gaitue. Zergaitik? apur bat gure sorrera edo hasikerako urteetatik datorrenari aitortza-edo egiteko.

Labayru diktadurearen amaieran sortu zan, eta orduan euskal kultura oso zapalduta eta baztertuta egoan. Eta hor egin zan ahalegin handi bat hori errekuperetako, gizarteratzeko eta euskaldun eta erdaldunen artean aurrera egiteko euskal kulturearen bitartez. Kulturearen balio sozial horregaitik emon deuskue saria.

Seguruenik euskal gaietan liburutegirik inportanteena, Labayruko Liburutegia izango da, ezta?

Inportanteena esatea asko da. Badagoz beste batzuk inportanteak sano, baina gurea oso inportantea da. Gurean dagozan gauza batzuk ez dagoz beste leku batzuetan, eta guk be falta doguz beste leketan dagozanak; baina bai, oso inportantea da gure liburutegia.

Labayruren sorreratik dago, puntal bat izan zan eta. Hiru hanka daukaz Labayruk: bata zan Etnografia, beste bat Hizkuntza eta literatura eta Liburutegia beharrezko ikusten zan ikerketetarako. Ordutik elikatzen eta handitzen eta ugaritzen joan da, eta gainera

ez bakarrik kopuruan, baita be euskarri motatan. Hasikeran liburuak eta aldizkariak hartzean ziran eta oin argazki, diapositiba, pegatina, foileto, audio, bideo... euskarriak be joan gara ugaritzen, gizartea aurreratuten joan ahala. Egia esan, fondo itzela daukagu. Hori be egia da.

Hasi barri da 2023-24 ikasturtea. Zein da ikasturterako Labayruren helburua? Zeintzuk dira arlo nagusietako proiektuak?

Gure ardatzetako bat euskerearen irakaskuntza da, eta oin ikasturte hasikeran gagozanez, ikastaroak hasten dagoz. Gero badaukagu Lexikografia, hori be lan jarraikoa da; Ondarean hainbat proiektu daukaguz, txikiagoak eta handiagoak, hainbat proiektu urte amaierarantza amaitu beharrekoak. Eta azkenengo urtean, beste arlo bat zabaldu dogu: Kulturartekotasuna.

Hori be lehen esan dogunagaz dago lotuta. Labayruk hasikeran, euskera eta gaztelaniaren artean zubi bat egin eban euskal kultureagaz. Gaur egun 120 hizkuntza baino gehiago egiten dira Bizkaian, orduan, zelan egin zubia? euskerearen lekua zein da hizkuntza horreen artean? Zelan ekarri hizkuntza horreetakoak euskerara? Euskera zelan hurreratu hizkuntza horreek egiten dabenengana?

Hortik sortu zan igaz, Mundueña izeneko proiektua. Hamar ipuin jasoten dauzan lan bat da. Ipuin bakotxa kultura batekoa da eta euren hizkuntzan eta euskerean, leidu eta entzun daiteke. Izena Mundueña ipin geuntsan, munduko ipuinen etxea. Munduko ipuinak batzean diran lekua izan daiten.

Oingo hilean, kulturartekotasuneko jardunaldi bat egitekoak gara, eta horrerik ekin eta jarraituko dogu landuten ikasturtean zehar.

Egingo da holango beste liburu bat?

Baleiteke bai, bada gure asmoa.

Kulturartekotasun jardunaldietan, berbaldiak eta lan-saioak egongo dira ikusteko non gagozan eta ze egoera sortzean diran herri mailan edo eskola mailan edo udal mailan... konbibentzia hori.

Izan be, guk gura badogu euskeraz segidutea, konbibentzia hori behar dogu. Lehen euskerea indarbarritzeko egin zan moduan, oin jente horrengana heldu behar gara. Eta zelan heldu? ba euren hizkuntzak errespetauz, lehenengo. Hurreratu behar gara euren kulturara. Deigarria da hurreratzan zaranean, emoten dauana baino askoz bardinagoak gara. Ipuinetan ikusten da hori; izan be, ipuinek, bakotxa herri batekoa izanda be, balio edo balore antzekoak transmitiduten ditue herri kultura guztietan, eta hainbat gauzatan bat egiten dogu. Orduan guk gura badogu, gure kultura errespetetea guk euren errespetau behar dogu. Ezin deusagu esan Senegaletik etorri dan bateri derrigorrez ikasi behar dauala hau. Gainera, batez be Afrikatik datozenek 7-8 bat hizkuntza dakiez. Badaukagu zer ikasi eurenagandik! Ze hemen ibiltan gara hizkuntza bategaz, horrekeri helduta eta beste bat ikasi ezinik.

Adar hori zabaldu dogu eta hortik be jarraitu gura dogu: transmitinoan, euskerearen balioan eta beste kulturen balioan.



IPUINAK

Ipuin kontaktak Lemoan eta Bedian

Erredakzioa

Lemoan, hilaren 24an, martitzena, 18:30ean, Izaskun Mujikak *Ipuin lapikoa* kontaketa saioa eskainiko dau Lemoako Kotxepin Kultur Etxean, eta hurrengo egunean, 18:00etan, ipuin kontaketa musikatua egongo da Ameli eta Xirrikituen jostunen eskutik Bediako liburutegian.

Strega Nona, Italiako sorgin zin-

tzoaren lapiko magikoa ezetuteko aukera parebakoa izango dabe Kotxepin Kultur Etxeko ipuin kontaktara hurreratzen diran umeek. Sorginaren ipuin dibertigarriaz gozatzearaino, lapikoak munduan zehar egindako ibilbidean jaso dituan istorioak entzungo ditue eta sorginkeriararen bat edo beste egiteko aukerea be izango dabe. Sarre-rak udal webgunean erosi daitezke.

Hurrengo egunean, hilak 25, eguaztenean, ipuin kontaketa musikatua egongo da Bediako liburutegian, 18:00etan. Ameli eta Xirrikituen jostunek konpainiak kontauko dauz ipuinak musikeagaz lagunduta. Urri bigarrenaren 24an, liburutegi eguna ospatuten dala-ta, umeak liburutegira erakarteko helburuagaz antolatu dau jarduera hau Udalak.

TAILERRA

Andra baserritarrak euskal literaturan gaineko tailerra egongo da Zeanurin

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 26an, 18:00etan, hasita, hiru saio izango ditu Mazala andra taldeak antolatu eta Skolastikako Josune Muñozek *Basa emakumeak: emakumeak eta baserri giroa euskal literaturan* Zeanurin emongo dauan ikastaroak. Beste saio biak, zemendiarren 2an eta 9an izango dira.

Ahozko literaturatik abiatuta eta egungo idazleengana ailegauta (Itxaro Borda edo Miren Amuriza,

besteak beste) ibilbide oparora dago, ikastaro honetan landuko dana.

Josune Muñoz

Josune Muñoz (Bilbo, 1967) euskal filologoa da eta andre sortutako literatura eta komikiaren gaineko ikerketa ugari egin ditu. 2003an sortu eban Skolastika eta harrezkerotzik hori proiektuori zuzenduten dau, zerbitzu literarioak eskainiz: andrak idatzitako literaturearen gaineko ikastaro eta tailerrak, ber-baldiak, kritika feminista eta abar.

BERTSOLARITZEA

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako kanporaketa bat jokatu da Igorren

Hilaren 29an, 17:00etan, Igorreko

Lasarte Aretoak, Bizkaiko Bertsolari

Txapelketako bosgarren kanporaketa hartuko dau.



Igorreko kanporaketako parte hartzaileak.

Erredakzioa

Bertan, Aissa Intxausti Aburruza, Asier Galarza Garai, Eneko Aldana Carrasco, Janire Arrizabalaga Munduate, Jone Larrinaga Dañobeitia eta Oihana Bartra Arenas neurtuko dira. Gai-emoile lanetan, Amaia Ugalde Begoñak jardungo dau.

Bertsolariek, hiruna bertso ofiziotan zortziko nagusian, hiruna bertso ofiziotan zortziko txikian, bakarkako lana: puntua emonda bertso bi zortziko txikian, hiruna bertso ofiziotan, hamarreko txikian eta bakarkako lana, kartze-

lako lana: gaia emonda, bertso bi, doinu eta neurri librean egin beharko ditue. Saioko irabazleak ziurtatuta dauka finalurrekoetarako pasea, gainontzekoek, puntuazioaren arabera eukiko dabe finalurrekoetara pasetako aukerea.

Finalurreto bat, atzena, Lemoako kirodegian jokatu da zemendiaren 25ean. Han, Nerea Ibarzabal Salegi, Onintza Enbeita Maguregi eta Gernika-Lumo irabazlea, Igorreko irabazlea, puntuazioz bigarrena eta puntuazioz bosgarrena neurtuko dira.

LEHIAKETA

Zeberioko Udalak 2024ko egutegia egiteko Argazki Lehiaketa abiatu dau



Erredakzioa

Argazki Lehiaketako gaia Zeberio da eta Zeberioko natura, eguraldia, baserriak, animaliak, lanak, inguruak... erakutsiko dira argazkietan. Lanak hilaren 31ra arte bialdu daitezke www.zeberio.net webgunera. Argazki irabazlearen egileak persona birentzako afaria edo bazkaria izango dau sarizat.

DUNBA

TKgune programea

Gorka Goikoetxea eta Eneko Iriondo. TKgune-ko Zulaibarreko arduradunak

Gaur egungo Lanbide Heziketa Ikastegiaren panoramea guztiz aldatuten dabil. Lanbide Heziketa eskolak, ikasleen garapen integrala bultzatuteaz gain, inguruko agente desbardinaren arteko kolaborazioak bultzatzen dauz, egoera sozioekonomikoaren garapenean bere kontribuzioa txikia eginaz. Honen harira, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak hainbat programa ditu martxan, honen adibide garbietako bat Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegiaren garatzen dogun TKgune proiektua aitatu daiteke.

TKgune programea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide



Heziketako zentro eta enpresa txiki eta ertainen arteko alkarlanaren bidez eratuten daben ekosistema barrizalea da. Programa honek hainbat abantaila eta aukera eskaintzen dauz inguruko enpresa

txiki eta ertainentzat, honek heziketa sistema osoagaz lotuz.

TKgune programeak barrikuntza eta ikerketa sustatzen dauz, enpresek eta heziketa erakundeek alkarlanean erabilgarriak diran

soluzinoak garatuteko asmoz. Enpresa txiki eta ertainek barrikuntza proiektuak eta ikerketa lanak bideratzen ditue heziketa erakundeek laguntzeagaz. Proiektuok, eskolan, irakasleek garatuten dabez eta ondoren proiektu horren garapenean lortuten dan jakintzea, ariketak, adibideak, materialak... ikasleengan isladatzen dira erronka forman, jakintzearen transferentzia bat bermatuteko.

Lankidetzaren proiektu honek dakarrezan onurak norabide bikoak izaten dira. Alde batetik enpresen arazoei urtenbidea emoten saiatuten gara, honeen bidea errazteko. Bestetik, ikasleak proiektu erreala-lan lanean aritzeko aukerea izaten dabe, egunean eguneko teknologia ezetuteko eta inguruko enpresak hartu-emon estua mantenduteko. Hartu-emon honek asko lagunduten deutso ikasleen lan munduko

ateak zabalduteari, irakasleogan formakuntza zientifiko-teknologikoa jasoteari eta inguruko enpresen lehiakortasuna Arratiako gazteei esker hobetuteari.

Proiektu honeen artean prototipoen mekanizazioa, 3D bidezko inprimaketa material metaliko edo plastikoa, fabrikazio prozesuen hobetutea, produktu barrien industrializazioa eta fabrikazio prozesuen automatizazioa aita-tuko leitezke.

Beti be Zulaibarretik inguruko enpresen garapenerako eta inguruko enpresei lagunduteko atek zabalik daukagu!



AGENDA

URRI BIGARRENAK 17
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

Hilaren 27ra arte bialdu daitekez argazkiak 2024ko egutegia egiteko Arantzazuko Argazki Lehiaketan parte hartzeako, *idazkaritza.arantzazu@bizkaia.org* helbidera.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Hilaren 31ra arte bialdu daitekez argazkiak 2024ko egutegia egiteko Areatzako I. Argazki Lehiaketan parte hartzeako, *komunikazioa.areatza@bizkaia.org* helbidera.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Hilaren 25era arte, 29an ospatuko dan Arratia-Otxandio-Ubide-Zeberioko XXII. Mendizale Egunerako izen emoteak. Arantzazu, 626 144 075 telefonoan; Areatza, 646 355 550 telefonoan; Lemoa, 675 701 359 telefonoan; Ubide, 696 744 988 telefonoan; Zeanuri 634 430 543 telefonoan eta Zeberio, 656 415 597 telefonoan.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela (giltza) personalizaua egongo da eta liburutegian jasoko da.

Hilaren 20ra arte, Playmobilakaz belena egiten parte hartzeako izen-emotea liburutegian.

Hilaren 20ra arte, 12 urtetik gorako gazteentzako bildurrezko makillaje tailerrera izen-emotea liburutegian. Tailerra urri bigarrenaren 28an, 16:30etik 18:30era izango da. Baita San Martin eguneko (zemendiak 11) bazkarirako izen-emotea liburutegian.

DIMA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik egunera.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela zabalik Kultur Etxean. Eguneroko.

Liburutegia zabalik astelehenetik egunera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:30etik 13:30era.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, Kotxepineko ikasgela zabalik. Eguneroko.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kultur Etxean.

Ganzabalek zemendiaren 19rako antolatutako Lemoatx Trailerako izen-emotea *buscametas.com* webgunean.

Hilaren 18ra arte, Ganzabal Mendi Taldearen 17. Argazki Lehiaketan argazkiak aurkezteko epea zabalik.

Hilaren 20ra arte, hilaren 28an izango dan jubiladuen bazkarirako izen-emotea udaletxean, 94 631 30 05 telefonoan edo *harrera@lemoa.eus* helbidean.

Hilaren 31ra arte, bialdu daitekez argazkiak Udalak antolatutako XII. Argazki Lehiaketan parte hartzeako *www.lemoa.net* webgunean. Gaia: Lemoa.

ZEANURI

Batxilera eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik eguneroko. DBHko ikasleentzat, astelehenetik egunera 17:00etatik 19:00etara.

Udagoien osoan, Gorbeia Parke Naturalak Otzarreta ingurua gozatzeko natura errespetauz, konzientziaraz kartelak ipiniko ditu Barazar mendatearen inguruan.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Hilaren 31ra arte bialdu daitekez argazkiak 2024ko egutegia egiteko Zeberioko Argazki Lehiaketan parte hartzeako, *www.zeberio.net* webgunean.

Hilaren 19ra arte, emon daiteke izena 22rako Austarri Mendi Taldeak antolatutako mendi urtekerarako *austarrimendialdea@gmail.com* helbide elektronikoa edo 665 735 054 eta 656 415 597 telefonoetan.

URRI BIGARRENAK 18

LEMOA

19:00etatik 20:00etara, hilaren 28an ospatuko dan Harriketarron XXIV. urteurrena dala-ta bazkarirako txartelak salgai Karabie Gaztetxean.

ARTEA

18:00etatik 19:00etara, gimnasioan monitorea.

URRI BIGARRENAK 19

IGORRE

20:00etan, Zinekluba, *Em* (zuzendaria: Pablo Larrain), Lasarte Aretan.

LEMOA

18:00etatik 19:00etara, hilaren 28an ospatuko dan Harriketarron XXIV. urteurrena dala-ta bazkarirako txartelak salgai Karabie Gaztetxean.

19:00etan, Karabie Gaztetxeak eta Zaplast talde feministeak antolatuta, Ane Lindaneren *Potxola* liburuaren aurkezpena eta berbaldia.

Bakarrizketa musikatua
Lemoako Kultur Etxean

Urri bigarrenaren 27an, 18:30ean, Iholdi eta Ibabe Beristain ahiztek, *Gazteak, euskara eta beste piztia mitologiko batzuk* izeneko bakarrizketa musikatua ekarriko dabe Kotxepin Kultur Etxera.

Ikuskizunak gazteek euskereagaz daukien hartu-emonaren gaineko hausnarketea planteetan dau. "Euskerea eta gazteak, gazteak eta euskerea. Gazteak ez dabe... Gazteak ez dira... Gaur egungo gazteak... Zenbat aldiz entzun ete doguz holangoak gazteak ez diranen ahotik? Ikuskizun honetan Iholdi eta Ibabe Beristain ahizta gazteen ahotsa izango da nagusi, eta egungo gazte euskaldunen narruan jartzen lagunduko deuskue berben eta musikaren bidez".

ZEANURI

18:00etan, Mazala andra taldeak antolatuta, Josune Muñozen berbaldia *Sorginkeria, sorgintasan ala sorgintza? Sorgin-ehiza Bizkaian*. Arkotxan.

19:30ean, Zeanuriko bertso eskolarean 2023-2024 ikasturteko lehenengo eguna, ludoteka gaineko gelan. Doban, izena emon 615 717 445 telefonoan.

URRI BIGARRENAK 20

LEMOA

18:00etan, Zaplast Talde Feministaren asanblada irekia eta aurkezpena. Karabie Gaztetxean.

URRI BIGARRENAK 21

AREATZA

11:00etan, *Areatzako uribildua ezagutzen* bisita gidatua. Gudarien Plazan.

19:30ean, Garryren kontzertua; rock, blues, soul eta country The Quiet Corner tabernan.

DIMA

12:00etan, Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, Antzasti Euskaldunon Etxean, *Ogi baltza baino baltzagoa, ogi eza*. Ondo etorria, bertsoak eta Felisaren labea: Abel Ariznabarretaren berbaldia, bideoa eta ogi dastaketea.

LEMOA

11:30ean, Eñaut Aiartzaguen Bravoren *Urluma* akuarela tailerra. Arte Gelan (Kulturgunea).

UBIDE

10:00etatik 14:00etara, nekazaritzako produktu eta artisautza azokea frontoian.

URRI BIGARRENAK 22

ARRATIA

Arratiako Maratoi Txikia. Nagusiak: Zeanuri-Igorre (11 km). 08:45etik 09:15era, izen-emotea Igorreko kiroldegian; 09:30ean autobusa Zeanurira Igorreko eskoletan; 09:30etik aurrera izen-emotea Zeanurin; 10:15ean, urtekerea. 2006tik 2010era jaiotakoak: Artea-Igorre (5 km); 09:30ean, autobusa Artea-Igorreko eskoletan; 09:30etik 10:15era, izen-emotea Artea-Igorreko plazan; 10:30ean, urtekerea. 2011tik aurrera jaiotakoak: 09:00etatik aurrera izen-

emotea eskolako aterpean; 10:00etan, urtekerea; ibilbideak: 2011tik 2013ra bitartean jaiotakoak 1.300 metro; 2014tik 2016ra bitartean jaiotakoak, 800 metro; 2017tik aurrera jaiotakoak, 300 metro.

ARTEA

11:00etan, Arratiako Xake Txapelketa. Parte hartzeako mezua idatzi 688 634 548 telefonora izen-abizenakaz: Saria: bertako produktuen otzarea. Herriko Bentan.

BEDIA

11:00etatik 14:30era, Arratiako Andra Ekintzaile eta Sortzaileen III. Azokea plazan (euria egin ezkerro frontoian).

IGORRE

17:00etan, zinea, *Tortugas Ninja: caos mutante*; 19:30ean, *Las dos caras de la justicia*. Lasarte Aretan.

ZEBERIO

07:45ean, Austarri Mendi Taldeak antolatutako Errioxara mendi urtekerea. Galbarruli (656 m)-Peñalrayo (956 m)-Jembres (854 m)-Villalba de Rioja (561 m): 12 km. Herriko plazan.

URRI BIGARRENAK 23

AREATZA

19:00etan, Areatzako Danborradearen Batzar Orokorra udaletxean.

ARTEA

18:00etatik 19:00etara, gimnasioan monitorea.

URRI BIGARRENAK 24

LEMOA

18:30ean, umeentzako ipuin kontaketea, Izaskun Mujikaren *Ipuin lapikoa* Kotxepin Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAK 25

ARTEA

18:00etatik 19:00etara, gimnasioan monitorea.

BEDIA

18:00etan, ipuin kontaketa musikatua, Ameli eta Xirrikietuen jostunek liburutegian.

URRI BIGARRENAK 26

ARTEA

19:00etan, Leire Milikuaren *Lur gainean itzal azpian* liburuaren aurkezpena. Kultur Etxean. Kafrangak andra taldeak antolatuta.

ZEANURI

18:00etan, Mazala andra taldeak antolatuta, Josune Muñozen ikastaroaren lehenengo saioa, *Basa emakumeak: emakumeak eta baserri giroa euskal literaturan* Arkotxan.

URRI BIGARRENAK 27

ARTEA

19:00etan, Irakurleen txokoa. Xabier Mendigurenen *Oso latza izan da*. Kultur Etxean.

DIMA

19:00etan, Andraizeak antolatuta, mahai-ingurua *Badago indarkeriarik umorean?* Eskolako kamarinan.

URRI BIGARRENAK 28

AREATZA

19:30ean, Singing Canada, Charlie

Cosh & Mikel Gaztañagaren kontzertua The Quiet Corner tabernan.

BEDIA

16:30etik 18:30era, 12 urtetik gorakoentzako bildurrezko makillaje tailerra liburutegian.

DIMA

11:00etan, bisita gidatua Antzasti Museoa. *Emakumea eta eguneroko bizitza*.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, goizeko jarduerak. Albiturri (944 m).

Jubiladuen eguna. 12:30ean, mezea; 14:00etan, bazkaria kiroldegian.

Karabie Gaztetxearen XXIV. urteurren jaiak. 11:00etatik 14:00etara, inguruko ekoizleen produktuen azokea Gaztetxearen ondoko kantxan; 15:00etan, bazkaria; 22:30ean, kontzertuak: Quaaluders, Txopet eta dj-a Gaztetxean.

URRI BIGARRENAK 29

IGORRE

17:00etan, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako saioa Lasarte Aretan. Bertsolariak: Aissa Intxausti Aburruza, Asier Galarza Garai, Eneko Aldana Carrasco, Janire Arrizabalaga Munduate, Jone Larrinaga Dañobeitia eta Oihana Bartra Arenas. Gai emole: Amaia Ugalde Begoña.

ZEANURI

08:30ean, Arratia-Otxandio-Ubide-Zeberioko XXII. Mendizale Eguneko mendi ibilaldia. Ibilbidea: Plazea-Altza-San Justo-Zanburu-Urribekarkabitxeta-Zulaibar-plazea.

URRI BIGARRENAK 30

ARTEA

18:00etatik 19:00etara, gimnasioan monitorea.

URRI BIGARRENAK 31

AREATZA

20:30ean, Los vecinos del quinto taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

ARTEA

Gau Baltza. Eske errondea eta gaztainak erre eta jan plazan.

BEDIA

Arimen gaua. 17:15etik 18:15era, umeentzako tailerrak ludotekan; 18:30etik 19:30era, *Gau Beltza*, Autu Mautu ipuin kontalariak; 19:30ean, Xanduli, manduli emon goxokiak guril Liburutegian.

IGORRE

Arimen gaua. 17:00etatik aurrera, tailerrak, Arantzarte jantza taldearen jantzak, ipuin kontalaria eta gaztainajana. Kultur Etxeko plazan.

ZEANURI

Arimen gaua. 18:00etatik aurrera, jokoak eta eskulanak, sorginen eta laminen jantzak, mozzorro desfilea, kobazuloetan sartu-urtena, Sorginetxean bildur gaua, berakatz-zopea, txokolata eta krepeak eta Gaueko dj-a.



KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabarru auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m²) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

TXAKURRAK EMOTEN DODAZ

Hiru ehiza txakur daukadaz emoteko. Hilebete bi daukiez. Igorreko Agarreko baserrian dagoz. Interesdunek deitu: 661 259 002.

LANA

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu: 664 303 528.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularrak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. 629 461 077.

INGELES IRAKASTEKO IRAKASLE BILA

Ingelesa irakasteko klase partikularrak etxean emoteko irakasle bila nabil, DBH 2. mailako ikasle batentzat. Interesdunek idatzi WhatsApp bidez 658 757 899 zenbakira.

FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Las dos caras de la justicia* filmarako.

Haritza Iturbe (Arantzazu)
Espe Kaltzada (Dima)



2 Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Igorreko sarrera.

Oihane Barrenetxea (Dima)
Garazi Santos (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel: 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIZARGINAK
1976
BIZARGINTZA-ILEAPAINDEGIA
94 607 78 33
LEHENDAKARI AGIRRE 9, IGORRE

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

begitu
eus

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
609-79-40-54

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

begitu
eus



IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus



BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____
 Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
 Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
 Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

begitu.eus    